

LEIRE BILBAO

TERRA NOVA

Nire bizitzan oso goiz izan zen berandu.

Marguerite Duras

Berandu jaio zinen
esaten zidan amak.

Bi astez berandutu nintzen
munduari beldurrez.
Beste bi astez izan nintzen
arrain gorri amaren urontzian.

Hiru kilo seiehun
argitu zion irrati-telefonoz aitari.

Ipurdiko bat eta
negar egin nuen aitarentzat.

Nire alaba!
Nire alaba!
entzun zen brankan.
Ondo gabiltza arrantzan
cambio y corto.

Gau hartako marinelen edariak
aitaren kontura izan ziren.
Gau hartan aitak pozik egin zuen lo.

Sei hilabetera ezagutuko zuen
amaren amuko arraina.

Bere besoetan hartu nindueanean
lehen aldiz igeri egin nuen itsasoan.

Badakit ez zela nire negarra
gazitasun busti hura.

Muy pronto en mi vida, fue demasiado tarde.

Marguerite Duras

Te demoraste al nacer, me decía mi madre.

Dos semanas de más me quedé escondida
como un pececillo rojo en su útero.

Tres kilos seiscientos, le detallé por radioteléfono a mi
padre.

Un cachete en el culo,
lloré para papá.

¡Mi hija!

¡Mi hija!

se oyó en proa.

La pesca va bien.

Cambio y corto.

Esa noche la tripulación bebió a cuenta de mi padre.

Y mi padre durmió feliz.

Tuvieron que pasar seis meses
antes de que conociese al pececillo
que colgaba del anzuelo de su mujer.

Cuando me cogió en sus brazos
nadé por vez primera
en el mar.

Ahora sé que no fue solo mi llanto
todo aquel mar salado.

LEIRE BILBAO

UMETAKO PORTUA

Amaren eskutik joaten ginen portura,
hilabeteetan izan ez genuen aitaren bila.

Garrasi egiten zigun kaiak,
egurrezko kaxek langileen eskuetan nola,
fenwickek eta izotz makinak ere garrasi.
Itsasoari eutsi nahi zioten atzamarrak ziren noraiak,
beti zabalik dagoen ate bat zen moila.

Arrain buruak lurrean, kalatxorien ahoan.
Ahizpa gaztea aitaren hanketan.
Ni hor nonbait geratzen nintzen
ezkatak biltzen, gasoil usaina dastatzen.

Traba egiten nuen:
portuko nasan, autoan etxeranzkoan,
beti erdian izkinei beldur.

Arrainak bezala betazalik gabe ni.

Aitaren bila joateari utzi genion halako batean
umeen orduak ez direlako itsasoarenak,
lotan geundela zabaltzen zelako etxeko atea,
bera gabe bizitzera ohitu ginelako.

PUERTOS DE INFANCIA

La mano de mamá nos guiaba de camino al puerto,
cuando íbamos a recibir al hombre que se ausentaba
durante meses.

El muelle nos gritaba,
como gritaban las cajas de madera en manos de los
estibadores,
gritaban las fenwick y gritaba la vieja máquina de
hielo,
los bolardos eran dedos intentando contener la mar
y el dique una puerta abierta.

Había cabezas de pescado por el suelo
y en los picos de las gaviotas.

Mi hermana se aferraba a las piernas de nuestro
padre.

Yo recogía el brillo de las escamas
E inspiraba con fuerza para llenar de gasoil mis
pulmones.

Al igual que los peces, no tenía párpados.

Un día dejamos de bajar a recibirlo
la puerta de casa se abría mientras dormíamos
y nos acostumbramos a vivir sin él.

LEIRE BILBAO

AITA

Umetan gorroto nuen etxera etortzen zen gizon hura:
bizarra egin gabe, Old Spice usainaz.
Harrian husten zuen fardela,
bidean uzten odol eta kresal tantak,
eta nire aurrean arrainak
begiak zabal, bata bestearen gainean hilda.
Dutxa hartu eta amarekin oheratzen zen.
Kiratsik gabe ere gorroto nuen
umetan etxera etortzen zen gizon hura.
Bere musuek ziztatu egiten zidaten azala.
Eskerrak etorri ahala joaten zen,
eskerrak Gabonetan ere ikusten ez nuen.
Arrainei begiak kendu eta kaniketan
jolasten nintzen pasilloan.
Umetan gorroto nuen gizonak
etxean aingura bota zuen egunean
balantzaka hasi ziren habeak.
Olatuekin bazkaldu genuen,
negar egin zuen ahizpa gazteak.
Itsasoa utzi zuen gizonari
ez zitzaion itsaso usaina joaten
Orain, arrain-hezurrezko bizarra
laztanten diodanean
inoiz gorroto izan nuela akordatzten naiz.

PADRE

De niña odiaba al hombre que venía a casa
sin afeitarse, con aquel olor a Old Spice.
Gotas de sangre y salitre tras sus pasos,
vacía su petate en el fregadero
y una montaña de peces muertos
me miraban con ojos saltones.
Después de ducharse se acostaba con mi madre.
Aun cuando olía a limpio seguía odiando al hombre
que venía a casa.
Sus besos me pinchaban la cara.
Menos mal que tal como venía, se iba.
Menos mal que no lo veía por Navidad.
Yo arrancaba los ojos de los peces
y jugaba en el pasillo a las canicas.
El día que el hombre que odiaba de niña
echó el ancla en casa,
temblaron los cimientos.
Comimos entre olas,
mi hermana menor lloró.
Aquel hombre que dejó la mar
nunca dejó de oler a salitre.
Ahora, cuando acaricio las espinas de su barba,
me hiere el recuerdo de aquel odio.

LEIRE BILBAO

LABADORA

Zu hil zinen egunean labadora bat erosi nuen.
Atexka zabaltzean
oinak busti zitzaizkidan,
ezustean harrapatu ninduen urak.
Erreka urdinak ditut bularrean, badakizu,
itsasoak gainezka egiten dit ahotik.
Labadoraren eskotillatik itsasoari begira izan zen,
bat-batean xaboi eta trapu artean
olatuak eraman zintuela jakin nuen,
garbigailu barrura atzamarrak sartu
eta zure bila aritu nintzen alferrik.
Ahotik egin nuen negar
belarrietatik zilborretik
eskuetatik azaletik,
eta orain hildako ibaiak ditut zainetan,
eta labadora berri bat.

LAVADORA

El día de tu muerte me compré una lavadora.
Al abrir la compuerta,
se me empaparon los pies,
el agua me atrapó por sorpresa.
Ya sabes, ríos azules recorren mi pecho,
el mar se desborda por mi boca.
Fue aquella vez, mirando desde la escotilla al mar,
entre el jabón y los trapos sucios,
cuando supe que te alcanzó una ola,
metí mis manos al instante en el agua enjabonada
buscándote en vano entre la ropa.
Lloré por la boca por las orejas
por los dedos por la piel,
y ahora, tengo ríos muertos surcando mis venas,
y una lavadora nueva.

LEIRE BILBAO

Gura nuke

jaiotza-agiririk gabeko itsasoarekin berritu
nire azalaren bide nekatuak
lurrik zaharrenarekin ezabatu

zuhaitz adarren eran
txorien ubera ukitu
dardaren neurri zehatza izan
airea moztu eta edan

uztarekin batera itzuli etxera, beti ezberdin,
gutxien uste dugunean
gatozelako bueltan
isiltasuna itzultzen hastearekin.

Gura nuke
hizkuntzari eskuez habia egin
ez balitzaizkit izen guztiak eroriko bidean.
Ezin itzularazi, ordea,
inoiz joan ez dena.

Hitzez oinez ikasi
gura nuke.

Quisiera

nacer como el mar
sin partida de nacimiento
borrar con la tierra más antigua
los cansados caminos de mi piel

tocar como las ramas de los árboles
la estela de los pájaros
conocer la medida exacta de su temblor
cortar el aire y bebérmelo.

Quisiera
retornar a casa en como la cosecha
fiel al cambio
comenzar a regresar en el momento menos esperado

que mis manos fueran nidos para la lengua
y que no se me cayeran todos los nombres en el camino.

Quisiera aprender a caminar
con las palabras.

JUAN RAMON MADARIAGA

DEFENTSARIK GABE

Jasanezin bilakatzen zaizu muga bat
gutxien espero duzunean.
Etxeko atea ez du betiko soinurik ateratzen,
okaran batek lurra kolpatzean txu egiten du.
Hotz dago etxeko muga.
Arin zeharkatzen da punta batetik bestera
eta, bitarteka, etxean gal zaitezkeen
sentsazioa hartzen duzu.
Kanpora begiraten duten leihoak
paisaiaren disparenekin itsutu dira.
Gortinek nekez eusten diote bertikaltasunari.
Hezetasunak pintura irintzen du zokoetan.
Komuneko dutxak isurkin arrosa
aireratzen du eztul intermitentearekin.
Telebistak begiak itxi ditu plasmaz bestaldean.
Sukaldeko limoiek ez dute oxidazioan sinesten.
Bertako aulki batean jesartzen zarenean,
azulejo guztiak begira dituzula sentitzen duzu.
Hortxe, defentsarik gabe,
eroriaren mugak zeharkatu dituzula sinesten hasia
zara.

SIN DEFENSAS

Hay un límite que se vuelve insoportable
cuando menos lo esperas.
La puerta no hace el mismo sonido de siempre,
si una ciruela golpea el suelo, escupe.
Hace frío en la frontera de la casa.
Se atraviesa fácilmente de una punta a otra
y, mientras, tienes la sensación
de que te puedes perder en ella.
Las ventanas que miran hacia afuera
se han cegado con el disparo del paisaje.
Las cortinas difícilmente soportan la verticalidad.
La humedad hace harina de pintura en los rincones.
La ducha emana un líquido rosáceo
con una tos intermitente.
La televisión ha cerrado los ojos tras el plasma.
Los limones de la cocina no creen en la oxidación.
Cuando te sientas en la silla
sientes que todos los azulejos te miran.
Ahí, sin defensas, comienzas a creer
que has sobrepasado el confín de la caída.

JUAN RAMON MADARIAGA

FRAKASOA

Metroa arinegi doa, arnas batean doa,
itxarote-gela batean ez bezala.
Bagoiek alboetara jotzen dute gogor.
Ezin dituzu poemaren gainean begiak finkatu.
Hitzak nahasten zaizkizu irakurtzean,
adierazpen libreko zentzumena kateatu.
corazón, con razón
instrucción, destrucción
existencia, resistencia
Eta azkenean, frakasoaren zeremoniarekin,
letras hitza irakurri ordez
lastre irakurri duzu.

FRACASO

El metro viaja demasiado rápido, en un suspiro,
no como en las salas de espera.
Sus vagones golpean a ambos lados.
No puedes fijar tus ojos sobre el poema.
Las palabras se enredan al leer,
el sentido de la declaración se encadena.
corazón, con razón
instrucción, destrucción
existencia, resistencia
Al final, con la ceremonia del fracaso,
en vez de leer letras
lees lastre

JUAN RAMON MADARIAGA

MEMORIA

Memoria ez da talko usaina besterik,
ahosabaian pegaturik duzun ostia,
hagin arteko haragi puska,
ukondoetako psoriasis.

Memoria ez da begiratu desorientatua besterik,
polioak jotako belaun desartikulatua,
perbertsioaren muga bigunak,
armada erabat suntsitua.

Memoria ez da maitasun erailketa besterik,
energia iturri agortezina.
electroshock baten efektu optikoa,
zure buruarekiko fedea.

MEMORIA

La memoria no es más que olor a talco,
una hostia que se pega al paladar,
trozos de carne entre los dientes,
la psoriasis de los codos.

La memoria no es más que una mirada desorientada,
una pierna retorcida por la polio,
los suaves extremos de la perversión,
una armada totalmente derrotada.

La memoria no es más que el crimen del amor,
una fuente inagotable de energía,
el efecto óptico de un electroshock
la fe que tenías en ti mismo.

JUAN RAMON MADARIAGA

ABIADURA BI

Etxea handiegi gelditu da,
batzuetan geletan galtzen naiz,
denbora gastatzen dut kontu egin gabeko
gauzak begiratzten.
Bera hil zenetik askotan egiten dut.
Nireak ez diren objektuak hartzen ditut
eta iragana bilatzen diet,
curriculuma ezartzen diot bakoitzari.
Badakit betidanik egon direla,
beti ikusi ditudala,
espazio horretako osagai sinpleak ziren.
Ez diet erreparatu.
Aste betean ez naiz denak arakatzeko gai izan,
eta lantzean behin atsedena hartu behar dut,
nekatzen naizelako edota
bihotza irauli egiten zaidalako bat-batean.
Azkena komunean gertatu zait,
buruko eskuila zahar bat hartu eta
nireak ez ziren ile luzeak
bertan korapilaturik ikusi ditudanean.
Kostatu zait kentzea,
eta eskuan nituela
ez nekien
bota behar nituen,
edo nora.

DOS VELOCIDADES

La casa se me ha quedado demasiado grande,
algunas veces me pierdo en las habitaciones,
y gasto el tiempo mirando cosas insignificantes.
Desde que ella murió lo hago a menudo.
Cojo objetos que no son míos y
les busco un pasado,
le atribuyo un curriculum a cada uno.
Ya sé que siempre han estado ahí,
que siempre los he visto,
que son complementos sencillos de ese espacio.
Pero no había reparado en ellos.
No soy capaz de examinarlos en una semana
y de vez en cuando tengo que descansar
porque me agoto o me da un vuelco el corazón.
Esta última vez me ha sucedido en el baño,
al coger un viejo cepillo
y ver que había cabellos que no eran míos.
Me ha costado quitarlos
y cuando los tenía en la mano
no sabía si debía de tirarlos
ni a donde

JUAN RAMON MADARIAGA

MEZUA

Hau zuretzako mezua da.
Baserri ondora hurbiltzen zen oreina desagertutzat eman dut.
Aurten hazirik eman ez duen gaztainondo zaharkituago dago.
Erori da lehen maluta. Bakarra, agian erraturik.
Eguzkiak lerratzen du bere marra gero eta beheiago.
Beltzegeiak dira ilunabarrak aspaldiko partez.
Alde egiten ez uzteko besarkadak beroa ematen dit oraindik.
Antzarrek pase geometrikoan betiko eran dei egiten dute.
Agian nekatuago. Iratzartzean ikusi ditut.
Erresistentzia gustatzen zaidan elea da.
Pospoloak galdu ziren ekaitz intermitentearen egunean.
Surik gabe nekez bizi ahal da.
Une batzuk ez dira inoiz memoriatik ezabatzen.
Zurrundu egin zaizkit besoak, goroldioz bete inguruko harkaitzak.
Euriteak prekariedade ekarri du teilatura.
Zoriona ez da askotan sentitzen.
Beti erdiesten dugu errazena, zailena inoiz ez.
Horrek desolatzen gaitu.
Bizi ginen inguruko aran guztiak kostalderaino doaz.
Gero eta gutxiago ibiltzen naiz.
Baina uda honetan itsasoraino jaitsi naiz.
Ur ertzean kristalezko botila bat aurkitu dut.
Paper tolestu bat zekarren, daltonikoentzat, zuri-beltzean idatzita.
Paperak zioen: hau da zuretzako mezua.

MENSAJE

Este es un mensaje para ti.
He dado por desaparecido al ciervo que deambulaba cerca del
caserío.
El castaño que este año no ha dado semillas está más envejecido.
Ha caído el primer copo. El único, quizá completamente confundido.
El sol desliza su luz cada vez más abajo.
Los atardeceres son demasiado negros desde hace mucho tiempo.
El abrazo que me diste para que no me fuera me sigue dando calor.
Los gansos siguen cantando en su pase geométrico a la manera de
siempre.
Quizá más cansados. Los he visto al despertar.
Resistencia es una palabra que me gusta.
Se perdieron las cerillas el día de la tormenta intermitente.
Sin fuego es difícil vivir.
Hay momentos que nunca se borran de la memoria.
Se me han endurecido los brazos, y las rocas que me rodeaban se
han llenado de musgo.
La lluvia ha traído precariedad al tejado.
La felicidad no se siente muchas veces.
Siempre logramos lo más fácil, lo difícil nunca.
Eso nos hace estar desolados.
Todos los valles de la zona en la que vivíamos van hasta la costa.
Cada vez camino menos.
Pero este verano he bajado hasta el mar.
En la orilla encontré una botella de cristal.
Traía un papel doblado, para los daltónicos, escrito en blanco y negro.
El papel decía: «Este es un mensaje para ti».